



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Senperen xorte bereko

Bertsu berri batzuen hasten naiz moldatzen Gure xorteko berri zueri kondatzen Hogoi'ta hamar gazte Senperetik ginen Erreforma pasatzen egun Uztaritzen Urrik'ogoita zortzi asteartea zen.

Karrosan firurikan joan ginen herritik Oihuka, irrintzinak, kantatuz hastetik Lili, xingol, bandera, edozoin aldetik Akordeona berriz poz bere xokotik Mundua harritia zagoen urrundik.

Sortzean bezalaxe xortean agertu Biluz-gorri emanik gaituzte ikertu Hogoi'ta hamar ginen guziak onartu Aintzindariak gaitu armetako hartu Nor giren Senper'tarrak han dira ohartu.

Gero zer gerta ere baiginen egarri Egun xurgaturen guk arno'ta edari Basoa eskuetan trinkatuz orori Zuen osagarrian erranez elgarri Ikus arte lagunak goraintzi deneri.

FUXTERO

Pierre Minaberrik emanak.

Jose SUSPERREGI,
Jaiberrikobordako
semea. Lau haurrideta-
rik bigarrena, Edouard,
Joset, Teresa, Gabi.



Ikasketak Uztaritzen egin zituen eta han Aita Lafittekin bertsoak moldatzen ikasi. Bere ize-
nez izenpetzen zituen J.S. edo izen ordez,
Fuxtero, Aitaxi... Hogeita bi urtetan joan zen
Parisera eta han bizi da oraino, Senperera
urtero bere itzulia eginaz.

Behorlegiko etxeko jauna

Behorlegiko etxeko jauna, nolakoak ez hura denak Euskal Herrian kasik lehenak dion bezala omenak Guk baditugu emazte onak, seme alabak lerdenak Moltsa gari du, kanpo gizenak Nun dira holako gizonak.

Airea: BETTIRI UHARTEKOA

Pierrot Bordak kantatua.

Bertze ainitz herrietan bezala Senperen antzerki, komedi, kabalkadak egiten ziren. Karia hortan emana izan zen bertso hau.

Olasoko Zubia

Olasoko zubixka zubi famatua Aspaldi huntan gutaz igurikatua Ez zen segur desira zuzen kontrakoa Taula txar bat ginuen zubi ordekkoa.

Egun dut nik erranen lehen ez bezala Gertakari bitxiak agertu direla Pasatuko haizela zur horren gainean Ez bahaiz aski fida sar hadi urean.

Zuk aldiz Dominixe uria zelarik Eta urak zubia kendu zuelarik Zer egingen ginuen salto ezin egin Etxean ginen egon behin bada behin.

Bertze holako frango mintzatzen balaki Zubiak sala liro nik baino hobeki Olason parioka zubirik ez zela Sekulan muntatuko ahantzi zutela.

Baina horiek hola jasanak jasanik Zubia hasia da ez izan hobenik Orain lehen bai lehen ahal baduzue Hasi duzuen lana burura zazue.

Errekan doan urak zubia harrotu Mahats jusak zenbaiti burua xoratu Bainan zer inporta du berantaren gatik Pasa ditaizke orain bai zubi gainetik.

Biba beraz Senpere'ta biba Olaso Ixildu aintzinean hauxe dut errango Senpereko gizonak direla luzakor Jaun Goikoa bezala baina ez ahantzakor.

Herria irakurtu dut ganden astean Matxinek zenbait bertsu lezazkela eman Pretentziorik ez dut Matxin berdintzeko Horra beraz zertako naizen ixilduko.

OLASOTARRIA

Pierre Minaberrik emanak.

Haranederrea Urkoi.

Norbaitek baleki nor den

Olasotarria?

Jakiteak eskertuko ginuke.

Belaun buru haundia -Senpereko-

Huna zer gertatu zitzaion Jean Barbier (1875-1931) luzaz Senperen erretor egon zenari (1913-1931 arte). Jakina da Garaztarrak dantzari arin eta finak direla eta bera Garaztarrak izanez bazuen Senpertarrentzat halako mespretxu aire bat bezala -Senpertarrak pixka bat pisuak zirelako beharbada-.

Behin hiru Senpertar, bat bertzea bezain haundiak plaza beheretik goiti zoazin, urrats ederean. Apeztxearen aintzinean Barbier erretora kurutzatzen dute. «Hara Senpertar belaun buru haundiak» hunek. Arrapostua laster batek eman zion, Larretxeri-k hain zuzen:

«Zu Baxenafartar selaru arina
Dena ere xurxuri taulaz egina
Gutartean ez baduzu hartzen atsegina
Maleta hartu ta zoazi aintzina».

Geor LARRETXERI

Senpertar Bertsolaria.

Paxkal MENDIBOURE-k emanak.

OXTIKENEKOAK Kultur Elkartearen DEIA

URTEKO BILKUR NAGUSIA

Urtarrilaren 19an,
10:00etan

- 2001garren urteko lanen aipamena
- 2002garren urteko helburuak
- Kontuak
- Bulegoaren eraberritzea Ondotik hameketakoa.